



AUTOBUS-GELTOKI ZAHARREAN ETA DESCALZOS KALEKO 56. ZENBAKIKO 2. SOLAIRUAN DAUDEN ERABILERA ANITZEKO ARETOEN ERABILERA BAIMENTZEKO IRIZPIDEAK

1. artikulua. Xedea.

Agiri honen xedea da irizpideak ezartzea autobus-geltoki zaharreko erabilera anitzeko aretoaren (sarrera 1. nasatik du) eta Descalzos kaleko 56. zenbakiko 2. solairuko erabilera anitzeko aretoaren erabilera baimentzeko, baita prozedura, erreserbatzeko baldintzak eta baimen horren funtzionamendua zehaztea ere.

Espazioen erabilgarritasuna eta ordutegiak baldintzatuta egonen dira, bateragarri izan beharko baitute bertan egiten diren jarduerekin eta haien helburu eta ordutegiekin, eta ezin izanen da egin eraikin horietako bakoitzaren ohiko funtzionamendua oztopatzen duen ekitaldirik. Dokumentu honetan aurreikusita ez dagoen beste edozein auzi partikular Iruñeko Udaleko organo eskudunek ebatziko dute. Pertsonen duintasunaren eta oinarritzko eskubideen aurka doazen ekitaldi edo jarduerak egitea galarazi ahalko da, indarreko legeekin bat.

2. artikulua. Ondasunen kalifikazio juridikoa

Toki-entitateei buruzko foru-arauek ezarritakoarekin bat, autobus-geltoki zaharreko erabilera anitzeko aretoa eta Descalzos kaleko 56. zenbakiko 2. solairuko erabilera anitzeko aretoa jabari publikoko ondasuntzat hartzen dira.

3. artikulua. Erabilera lagatzeko baldintzak

Autobus-geltoki zaharreko erabilera anitzeko aretoa eta Descalzos kaleko 56. zenbakiko 2. solairuko erabilera anitzeko aretoa erabiltzeko nahitaezkoa izanen da merkataritza arloan eskumena duen Zinegotzi Ordezkararen baimena izatea.



4. artikulua. Erabilera.

Zein jardueretarako lagatu eta horiek egiteko bakarrik erabili ahal izanen da eskatutako espazioa. Ezin izanen da beste jarduerarik egin berariazko baimenik gabe.

Autobus-geltoki zaharreko aretoan berariaz debekatzen da ostalaritza-jarduerak egitea.

Descalzoseko eraikineko aretoan ostalaritza-jarduerak barne hartzen dituzten jarduerak egin ahalko dira, betiere aretoan bertan ez bada janaririk prestatzen; hala nola kafe-atsedenaldia, aperitiboa, koktela, dastaketak, bazkariak edo afariak, eta ekitaldi gastronomikoak, oro har, non aretoan bakarrik kontsumitu egingen baita, eta inolaz ere jakiak bertan prestatu.

5. artikulua. Erabilera-ordutegia

Erabilera-ordutegia eskatzaileak eskabidean zehaztutakoa izanen da eta ezin izanen da areto bakoitzerako jarraian zehaztutako ordutegietatik kanpo egon:

Autobus-geltokiko aretoa:

Udan eta eskola-oporretan (ekainaren 1etik irailaren 30era, biak barne; abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra, biak barne; Aste Santuan eta hurrengo astean, larunbatera arte, egun hori ere barne dela): 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

Urteko gainerako sasoietan (negua): igandetik ostegunera, biak barne direla, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Ostiral, larunbat eta jai-bezperetan: 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Ezin da baliatu erabilera anitzeko areto hau urtarrilaren 1ean eta 6an, uztailaren 6tik 14ra (biak barne), eta abenduaren 24an, 25ean eta 31n.

Descalzos kaleko aretoa:

Astelehenetik igandera, 09:00etatik 21:00etara.

Ostalaritza-jardueraren bat barne hartzen duten ekitaldirik egitekotan (aperitiboa, koktela edo antzekoa), ekitaldiaren amaiera orduak eta aretoaren



itxierarenak bat egin beharko dute eraikinaren hirugarren solairuan dagoen jatetxearen itxierarekin.

Egun horretan aipatutako jatetxea itxita balego, 21:00ak arte erabili ahal izanen da.

6. artikulua. Eskaerak eta baimenak

Aretoak erabiltzeko ezinbestekoa izanen da aldez aurretik horretarako erabilera-baimena izatea.

Aretoak erabiltzeko eskaera merkataritza arloan eskumena duen alorrari zuzendutako eskabide orokorraren bidez egin beharko da, eta hura aurkeztu beharko da espazioa noiz erabili nahi eta gutxienez 10 egun baliodun lehenago eta gehienez 6 hilabete lehenago, telematikoki Egoitza Elektronikoan, edo, bestela, aurrez aurre, Iruñeko Udalaren erregistro-bulegoetan, posta-bulegoan, edo, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein tokitan.

Honako informazio hau eman behar da eskabidean: jardueraren deskribapena, data eta ordutegi osoa (barne hartuta jardueraren aurreko eta ondorengo denbora, elementuak muntatzeko eta desmuntatzekoa eta bertaratzen direnak hartzeko eta agurtzekoa).

Adierazitako informazio guztia Iruñeko Udalari helarazi beharko zaio, gutxienez, jarduera egin baino 5 egun baliodun lehenago. Hala izan ezean, eskabidea ezeztu ahal izanen da.

Descalzos kaleko 56. zenbakiko 2. solairuko erabilera anitzeko aretoaren kasuan, gainera, erabilgarri dauden elementuen muntatze-premiak eta aurreikusitako muntaketaren krokisa gehitu beharko dira.

7. artikulua. Areto bakoitzaren ekipamendua

Autobus-geltokiko aretoa:

- 3 aulki ohorezko mahaian
- 50 aulki publikoarendako (30 aulki, paladunak; beste 20, palarik gabeak)



- Megafonia (mahai gaineko bi mikrofono, eskuko mikrofono bat eta bozgorailuak)
- Arbela.
- Proiektagailua.

Descalzos kaleko aretoa:

- Hizlariendako mahaia eta aulkiak.
- Publikoarendako 20 mahai eta 60 aulki.
- Proiektorea
- Pantaila eta megafonia (mahai gaineko mikrofono bat, eskuko mikrofono bat eta bi bozgorailu).

8. artikulua. Nola erabili

1. Aretoak erabiltzeko baimena duen pertsonak jardura egin aurretik ordaindu beharko ditu dagozkion tarifak, zeinak jasota baitaude Udalaren aretoak eta espazioak erabiltzeko prezio publikoak arautzen dituen 1. Arau fiskalean.

2. Aretoak erabiltzeko baimendutako pertsonak kontrolatu beharko ditu sarbideak eta baimendutako edukiera betetzen dela. Behin instalazioari esleitutako edukiera betez gero, galarazi eginen da jende gehiago sartzea.

Hona hemen gehienez sar daitekeen jende kopurua:

- Descalzos: 161 lagun zutik, aretoa garbi badago, altzaririk gabe. 60 lagun eserita, aretoa eskola-eran muntatuta badago.
- Autobus-geltokiko erabilera anitzeko aretoa. 50 lagun eserita, eskola-eran; eta 4 lagun, ohorezko mahaian.

3. Betiere, lagatzeko ezinbesteko baldintza da Iruñeko Udalak aretoa behar ez izatea.

4. Aretoa erabiltzeko erreserben ordena eskabideak behar bezala formalizatuta zein hurrenkeratan iritsi eta horren arabera izanen da.



5. Muntatze eta desmuntatze lanak erabiltzailearen kontura joanen dira.
6. Udaleko teknikariek esaten dutenari men eginen zaio uneoro.
7. Ezein kasutan ezinen dira blokeatu, zaildu, oztopatu edo estali larrialdietako irteerak, larrialdietako seinaleztapena, su-itzalgailu eta alarma sakagailuak, su-detektagailuak eta beste segurtasun- eta prebentzio-elementu batzuk.
8. Alor eskuduneko arduradunari aurrez eta garaiz eskatu beharko zaio edozein apaingarri jartzeko baimena, eta honek aurrez baimendu. Halaber, ezinen da materialik iltzatu, zintzilikatu edo itsatsi alor eskudunaren berariazko baimenik gabe.
9. Aretoa erabili aurretik zegoen baldintza berberetan utzi beharko da, garbitasun eta ordenari dagokienez. Bereziki, Descalzoseko eraikineko aretoaren kasuan, ostalaritza-erabilera bat egiten bada, sortutako hondakin guztiak kendu beharko dira jarduera amaitzean. Iruñeko Udalak pertsona zein entitate eskatzaileari garbiketa-gastuak edo kalteen konponketakoak aplikatzeko ahalmena gordetzen du beretzat, baldin eta espazioaren erabilera arduragabeagatik garbiketa- edo konponketa-zerbitzu berezi bat beharrezkoa bada.
10. Aretoak erabiltzeko baimena besterenezina da; horrenbestez, baimenaren titularrek ezin izanen dizkiote baimendutako erabilerak inori lagatu, ezta inorekin elkartrukatu ere, salbu Udalaren onespena badute.
11. Interesdunak uko egiten ahalko dio erabilerari, Udalaren aretoak eta espazioak erabiltzeagatik prezio publikoak erregulatzen dituen Arauan jasotakoarekin bat.
12. Iruñeko Udalak beretzat gordeko du baimendutako erabilerak Udalaren interesengatik aldatzeko edo baliogabetzeko ahalmena, interesdunei eragiten ahal izan dizkien kalteak direla-eta erantzun beharrik gabe, salbu ordaindutako prezioak interesdunei itzuli behar izatea.

9. artikulua. Objektu pertsonalen zaintza

Iruñeko Udalak ez du ardurarik hartuko baimenaren xede diren jarduerak egin bitarte eremuan galdu edo hondatutako objektu pertsonalen gainean.